

4.Osasun plana

P4-01-1

4.1.- Entrenaldi edo partidetako ustekaberen baten aurrean jarraitu beharreko protokoloa

Arazo larri baten aurrean, deitu 112ra, eta ondoren gurasoei, gertatua jakinazteko eta nora zuzendu behar duten esateko.

4.1.1. Eskolaldian eta Eskola Kirola orduan, EZ FEDERATUAK:

- Eskolaldian edo Eskola Kirola orduan astelehenetik ostiralera bitartean (16:30-17:40) bada, ikastolako eritegira zuzenduko dira ikaslearekin, Rosa erizainak hartatu dezan.
- Eskolalditik eta Eskola Kirolatik kanpo bada, tokian bertan hartatu ikaslea, eta hori nahikoa ez balitz, ikaslearen gurasoak deitu, jakiteko....

- gurasoak ikastolara bila etorriko diren eta hurrengo puntuan zehazten diren zentro kontzertatuetara eramateko

Aseguruaren estaldura izan dezan:

- Deitu 902 108 509 laguntzara, Lauro Ikastolako poliza zenbakia adieraziz 37321714. Aseguruak erreferentzia zenbaki bat emango du, ondoren erizainari jakinaraziko zaiona, aseguruari jakinarazi diezaion partea.

Ospitale publikoren batera doana, ez da egongo aseguru polizaren estaldurapean

4.1.2. Kirolak, FEDERATUAK:

Futbola: Parte agiria bete (Osasun Planaren eranskina 1) Parte bete ondoren, jarraitu aipatutako helbidean azaltzen diren urratsak, eta Joan Virgen Blanca laguntza zentrori; ondoren, jakinarazi ustekabea Eskola Kirolako arduradunari.

<http://www.mutuafutbolbizkaia.com/>

Saskibaloia: Denboraldi hasieran Saskibaloiko koordinatzaileak emandako zentro kontzertatuetara jo, jokalaria fitxarekin.

Waterpolo: Denboraldi hasieran Multikirola koordinatzaileak emandako zentro kontzertatuetara jo, jokalaria fitxarekin.

4.Osasun plana

4.2.- Langileen osasun azterketarako jarraitu beharreko protokolo

Behekosoloko langileek lanpostuari dagokion osasun azterketa egin beharko dute, urtean behin, Rekalde Zumarkaleko “ASEV prevención”-en instalazioetan. Kontratazio berriak adierazi egin beharko dira, eta osasun azterketa berezia egin.

Osasun azterketa egin ondoren, Behekosolara bialduko da langile bakoitzaren emaitza pertsonal konfidentziala eta gaitasunezkoa enpresarentzat , Behekosoloko Prebentzio Planean gordeko delarik.

4.3.- Federatuen osasun azterketaren protokoloa

Futbola:

- Jokalari federatu bakoitzaren fitxa burutu aurretik, osasun azterketa egin behar izango du Osalaketa zentru kontzertatuan.
- Bi urterik behin berriztatu beharko da. Epe muga betetzerakoan, Federazioak Ikastolari jakinarazio dio Web-en bitartez.

Saskibaloia eta Waterpolo:

- Irailaren hasieran jokalari federatuek osasun azterketa egingo dute Lauroko egoitzan, eta ondoren fitxa bideratuko zaie.
- Urtero berriztatu beharko da.

4.Osasun plana

4. Lehen laguntzarako argibideak

ISTRIPUA GERTATUZ GERO ZER EGIN

Oro har, istripua gertatzen denean, pertsonal espezializatua ez da egoten gertaera izan den tokian, horregatik, inguruan dagoen monitoreak da lehendabizi jardun behar duena, argi izan behar duelarik egin behar duena, zaurituaren egoera areagotu ez dezan, eta ohartarazpen sistema eta ebakuazioa martxan jarri. Laguntza eman diezaiokeen edozeinek jarraitu beharreko lehen araua lasaitasuna mantentzea da, patxada transmititu, eta zentzuz jardun.

OINARRIZKO ARAUAK

BABESTU: Bai min hartu duena, baita laguntza ematen ari dena ere.

JAKINARAZI: Ipinita dagoen larrialdi sistema martxan jarri, eskuarki, telefono bidezkoa.

LAGUNDU: Zaurituak behar duen laguntza burutu.

Babestu:

Tokian egon litezkeen arriskuak kenduko dira: sua, toxikoak, argindarra, objektuen erorketa...

Lehendabizi, objektuak erortzeko arriskua dagoen tokitik urrundu egingo da zauritua.

Elektrokuzioa:

EZ IZAN KONTAKTU FISIKORIK ZAURITUAREKIN. Bitarteko ez eroaleak erabili (zura, plastikoak, sokak...) zauritua argindar iturritik bereizteko.

MOZTU ARGINDAR OROKORRA .

Sua: Su gunetik urrundu, edo sua itzalten saiatu.

Ohartarazi:

Larrialdi zerbitzukoak etor daitezen deia egiten duenak argi eta zehatz eman behar ditu zenbait datu:

Istripua gertatu den tokia.

Istripu mota.

Zauritu kopurua.

Istripuaren balizko zergatia

Lagundu :

Laguntza emango zaio zaurituari, osasun zentru baterako ebakuazioa erraztuz.

Zauritu bat bat baino gehiago balego, lehentasunak jarriko dira; horretarako kontuan izan:

Konortea: Ukimena edo hotsaren bitarteko estimuluei erantzuteko gai den baloratu.

Arnasa: Bular aldean arnasketa mugimendurik dagoen begiratu, edo ahotik nahiz sudurretik aiderik ateratzen den.

EKIDIN :

BEHARREZKO EZ DIREN MUGIMENDUAK

GORPUTZAREN HOZTEA: Posible balitz, burusi batez estali.

EDOZEIN MOTAKO ELIKAGAI EDO EDARI EMATEA. Urik ere ez.

4. Lehen laguntzarako argibideak

POSICIÓN LATERAL DE SEGURIDAD

Pertsonal espezializatua iritsi arte jarriko dugu posizio honetan, beti ere, zauritua konorte gabe egonik, arnasa eta pultsua nabari badira, eta traumatizaturik ez badago.

Segurtasuneko Saihets-jarrerarekin (SSJ) honako hau lortzen dugu:

Mingainaren oinarriak aire-bidea ez oztopatzea.

Zaurituak botaka eginez gero, eduki gastrikoa ez irenstea

Zauritua Segurtasuneko Saihets-jarreran ipintzeko:


Zugandik hurbilen dagoen zaurituaren hanka tolestu.

Zugandik hurbilen dagoen zaurituaren eskua ipurmasailen azpian jarri.

Itzuli zauritua zeuganantz, sorbaldeetatik eta gerrialdetik oratuta.

Babestu zaurituaren aurpegia tolestutako besoko eskuaren gainean, burua luzapen osoan mantentzen delarik

Gogoratu zauritua ez dela mugitu behar konortea galtzearen zergatia traumatismoaren eraginez izan litekeela susmatzen bada.



4. Lehen Laguntzarako Argibideak

LEHEN LAGUNTZAN NOLA JARDUN

ZAURIAK

• **Azaleko zauriak**

Ataleko goiko azala bakarrik zaurituta dagoenean, Zer egin behar da?

Norbere eskuak garbitu eta desinfektatu.

Zauria garbitu ur eta xaboi likidoz.

Zauria desinfektatu antiseptiko batez (povidona iodatua).

Zauria estali gaza garbi batez, eta benda batez finkatu.

Zauriaren ondorengo berrikustea osasun-langileen aldetik.

EDONOLAKO ZAURIA DELA ERE, BALORATU, OSASUN-LANGILEEN ALDETIK,
TETANOSAREN AURKAKO TXERTAKETA EGOERA.

• **Zauri sakonak**

Azalekoak baino larriagoak izan ohi dira, zoldura eta odoljario arrisku handiagoa dute eta.

Osasun zentro batera bideratu beti, bere balorazioa eta tratamendurako.

ODOLJARIOAK

•**Kanpoko odoljarioa**

Kanpo-odoljarioa deritzo, odola zauri baten bitartez edo zulo natural baten bitartez irtetend enean (sudurra, belarria, ahoa...)

Odola zurrustaka irteten bada:

Sakatu zauria oihaltz gaza batez, etengabe eta modu indartsuz.

Etzan zauritua, zorabioa ekiditeko.

Deitu berehala osagile bati.

Ez jarri torniketerik (salbuespenezko kasuetan soilik).

Ez atera iltzaturik dagoen objektu zorrotzik.

Odola bortizki isurtzen ari ez bada:

Sakatu zauria gaza edo oihaltz gaza batez, hamar bat minutuz.

Etzan edo jesarri zauritua, zorabioa ekiditeko.

Bendaje leun bat egin zauriaren gainean.

Osasun-langile batek berikusi zauria.

•**Barneko odoljarioa**

Zaurituak odola galtzen du, baina ez da kanpoaldera ateratzen, gorputz barnean pilatzen da.

Odoljario mota hau zauriek edo kolpe bortitz batek eragina izan liteke (kontusioak).

Barneko odoljarioa dagoela susmatuko da, zaurituak honako zantzu guztiak, edo batzuk dituenean:

Zurbiltasuna.

Larruazal hotza eta izerditsua.

Zorabio sentsazioa.

Buruko mina.

Takikardia (taupada azkarrak)

Arteria hipotentsioa (taupada mantsoak)

4. Lehen Laguntzarako Argibideak

Zer egin behar da?

Anbulantzia deitu berehala.

Anbulantzia itxaron bitartean, ahoz gora etzan zauritua, eta hankak igota.

Zer **EZ** da egin behar?

Istripua izan duena indarberritzen saiatu kafearekin, alkoholarekin, edo beste edozein motako edariekin, edo jaten emanez.

ZAURITUEN HAUSTURAK ETA GARRAIOA

Honako kasuetan susmatu dezakegu hezur haustura dagoela:

Min handia.

Erasana izan den gorputz atala ezin mugitu.

Min hartutako aldearen deformazioa.

Hematomak agertzen dira.

- **Hauztura itxia:**

Larruazalean ez dago zauririk. Larruazala osorik dago.

- **Hauztura irekia:**

Zauria agertzen da, apurturik dagoen hezurak urratu egiten baitu larruazala.

Zer egin behar da?

Ospitale zentru batera eraman, berehala, zauritua

Zer EZ da egin behar?

Hauzturak sortu duen zauri ukitu. Oihal garbi batez estali behar dugu soilik.

Hauztutako hezurra zuzentzen saiatu.

Erasandako gorputz atala mugitu

ELEKTROKUZIOA

Deskarga elektrikoaren kasuan, zauritua korrante elektrikotik bereizi ondoren, eta

konortetik gabe badago eta arnasarik hartzen ez badu, kardio-arnasketarako espezializatua den pertsonalaren parte-hartzea eskatu..

Konortetik gabe badago, baina arnasa hartzen badu, Segurtasuneko Saihets-jarreran ipini ambulanzia iritsi arte.

BETI ERE , ospitale zentro batera eraman, zaurituak konortea berreskuratzen badu ere.

ERREDURAK?

Hiru mailatan sailkatu daitezke erredurak:

Lehen graduko erredurak: oso azalekoak dira, eta larruazalaren gorritasun bat besterik ez da nabaritzen.

Bigarren graduko erredurak: sakonagoak dira, eta babak agertzen dira larruazalean.

Hirugarren graduko erredurak: zeharo suntsitzen dira larruazaleko geruza guztiak, baita sakoneko ehunak ere. Larruazala kiskalita dago.

Edonola ere, erreduren larritasuna zehazteko garrantzirik gehien duen faktorea ez da gradua soilik, baizik eta baita bere hedadura ere.

4. Lehen Laguntzarako Argibideak

- **Erredura larriak**

Zer egin behar da?

Sorosleak, burusiekin, urarekin edo likido ez sukoi batekin itzaliko ditu suak hartutako erroparen garrak.

Zauritua etzanda eta burusi batez estalita mantenduko da.

Anbulantzia deitu berehala.

- **Erredura arinak**

Zer egin behar da?

Ura isuri erredura gainera.

Gaza garbi batez estali erredura.

Argibideak eskatu osagileari.

Zer Ez egin?

Babetako azala erauzi.

Pomadak eman.

LESIOAK BEGIETAN

Begietako lesio guztiek, nahiz eta arinak izan, osagile batek tratatuak izan beha dute.

Mota honetako lesioak honako arrazoiren baten eraginez izan litezke:

Partikula edo gorputz arrotzen talkagatik, hau da, kristalezko partikulak, zurezko txirbilak, harri koskorak, etab.

Erredurak sortzera iritsi litezkeen likido toxiko edo urratzaileen zipriztina (alkohola, lixiba, sulfuman, azidoak, etab.)

Ebakiak edo kolpeak erorien ondorioz, edo lanabesen erabileragatik.

Begiko lesioen aurrean nola jokatu :

Ur ugari erabili begia garbitzeko.

Gaza garbi batez estali begia.

Osasun zentro batera eraman zauritua.

INTOXIKAZIOAK

Substantzia toxikoa modu desberdinetan sar daiteke organismoan:

Larruazaletik

Ahotik

Arnasaren bitartez.

Substantzia toxikoak organismoan sartzeko modurik ohikoena larruazalaren eta arnasaren bitartez da.

Intoxikazio sintoma orokorrak honako hauek izan litezke:

Lozorroa, koman amaitu daitekeen logura, buruko min handia, goragaleak, gonbitoak eta konortearen galera.

4. Lehen Laguntzarako Argibideak

Larruazaletik:

Zer egin behar da?

Zikindutako arropa baztertu.

Ur askorekin eta xaboiak garbitu.

Ospitale zentru batera eraman azkar.

Zer EZ da egin behar?

Pomadak erabili, zoldurak sortu baititzake.

- Arnasaren bitartez:

Pertsonarentzat kaltegarriak izan litezkeen substantziak arnasten direnean gertatzen dira; gasak, baporeak, hautsak... izan litezke.

Zer egin behar da?

Aire kaltegarritik aldendu zauritua, soroslea ere intoxikaturik gerta ez dadin behar diren neurriak hartuz.

Anbulantzia deitu berehala.

Segurtasuneko Saihets-jarreran mantendu intoxikatua, geldi, arropa jantzita eta atsedean osoan, ambulanzia iritsi arte.

Zer EZ da egin behar?

Aire kutsatua dagoen tokian bertan zauritua indarberritzen saiatu.

- Ahotik:

Ez da gonbitoa eragin behar:

Intoxikatua konorterik gabe badago, edo konbultsioak baditu.

Produktu kaustikoak hartu baditu (lixiba...) edo petroliotik eratorritakoak (gasolina...)

Haurdun badago.

Gonbitoa eragin behar da:

Intoxikatua bere kordean badago.

Ura gatzarekin emango zaio, edo gonbitoa estimulatuko zaio.

KONBULTSIOAK. EPILEPSIA KRISIA

La actuación ante este tipo de situaciones será:

Jarri erasandakoa lurrean etzanda.

laxatu, gerrikoa...

Objektu bigun bat jarri (zapi tolestu bat...) ortzen artean, mihiari haginka egin ez diezaion.

Segurtasuneko Saihets-jarreran jarri, botaka egiten badu edo sekrezioak baditu

badaezpada.

ZIZTADAK, ANIMALIEN HAGINKADA

Garbitu zauria uraz, xaboiak eta iodoaz.

Ziztada erlearena, arrabioarena, medusarena, sugearena... bada, konpresa hotzak jarri.

Min handia edo arnasa hartzeko zailtasunak baditu, eraman berehala ospitale zentro batera.

Txakurraren haginkada denean: desinfektatu zauria, odoljariora kontrolatu, baldin badago, eta txakurraren txertatze egoeraren balorazioa, posible bada. Ospitale zentro batera

eraman, segimendua egiteko.

4. Lehen Laguntzarako Argibideak

LEHEN LAGUNTZETARAKO MATERIALA

Materialaren kokapenak erraz iristeko modukoa behar du izan, edo maleta eramangarri bat eduki, istripua gertatu den tokira eraman-erraza.

Beti ere, toki lehor eta freskoan mantendu behar da.

Berrikusi egin behar du, aldian-aldian, horretarako aukeratu den arduradunak, agortu diren produktuak berriz hornituz eta iraungipen data berrikusiz.

Dena mantendu behar da ordenaturik, garbi eta toki itxi batean.

Lehen laguntzetarako aholkuak eta argibide orokorrak eduki behar ditu, eta larrialdi telefono zenbakien listatu bat.

Botikinaren oinarrizko materiala:

Eskularruak: norberaren babeserako

Garbiketa eta desinfekzioa:

Suero fisiologikoa.

Xaboi antiseptikoa.

Iodo disoluzioa.

Sendaketak:

Gaza esterilak.

Esparatrapua.

Tiritak.

Gaza baselintatuak (Linitul).

Bendak

Kotoia

Zelulosa

Begitako txaplatak

Beste zenbait material:

Matxardak

Artaziak

Termometroa

Erabilera bakarrerako poltsa hotza

Buruzi termo-isolatzailea.

Oinarrizko botikak:

Azukre zorroak

Azido azetil salizilikoa: Aspirina ■

Paracetamol: Gelocatil, Termagin

Flammacine-Silverderma: Erredurak

Thrombocid pomada: Hematomak.



DELEGACIÓN TERRITORIAL VIZCAÍNA
DE LA MUTUALIDAD DE FUTBOLISTAS

Expediente nº _____

ES IMPRESCINDIBLE RELLENAR TODOS LOS DATOS

CLUB	CATEGORÍA	TELÉFONO CLUB

MODALIDAD	Fútbol	Fútbol Sala	Fútbol Femenino
	☐	☐	☐

DATOS DEL LESIONADO		
Nombre	D.N.I.	Teléfono
Apellidos	F. Nacimiento	Localidad
Domicilio	Código Postal	

Fecha de la lesión	Posición en el campo	Clase de Licencia			Lesión producida en
Fecha	Portero ☐	Profesional ☐	Entrenador ☐	Partido amistoso ☐	
EQUIPO CONTRARIO	Defensa ☐	Aficionado ☐	Auxiliar ☐	Partido oficial ☐	
	Medio ☐	Juvenil ☐	E. Mant. ☐	Entrenamiento ☐	
	Delantero ☐	Cadete ☐	ATS ☐	Desplazamiento ☐	
		Infantil ☐	Árbitro ☐		
		Alevín ☐			

A RELLENAR POR EL LESIONADO	
Circunstancia y detalle de la lesión: _____	
¿Ha tenido alguna lesión anterior?	SI ☐ NO ☐ (En caso afirmativo especifique cuál)

Declaro estar enterado de las coberturas, garantías y centros concertados que figuran al dorso. FIRMA DEL LESIONADO
--

Conociendo la lesión sufrida, autorizo la utilización de los servicios médicos concertados por la Mutualidad de Futbolistas y Allianz Seguros. Asimismo declaro que el accidentado se encuentra en situación de alta en la Mutualidad. FIRMA DEL PRESIDENTE SELLO DEL CLUB
--

El perjudicado/lesionado del siniestro anteriormente descrito autoriza el tratamiento de los datos personales suministrados voluntariamente a través del presente documento y la actualización de los mismos para el cumplimiento del propio contrato de seguro, la valoración de los daños ocasionados en su persona, la cuantificación en su caso, de la indemnización que le corresponda y el pago del importe de la referida indemnización. Asimismo, acepta que los referidos datos personales sean cedidos, exclusivamente, a aquellas personas o entidades cuya intervención sea necesaria para el desarrollo de las finalidades indicadas anteriormente, así como al tomador de la póliza de seguro, y sin necesidad de que le sea comunicada cada primera cesión que se efectúe a los referidos cesionarios.

Todos los datos son tratados con absoluta confidencialidad, no siendo accesibles a terceros para finalidades distintas para las que han sido autorizados. El fichero creado está ubicado en la Delegación Territorial Vizcaína de la Mutualidad de Futbolistas, quien asume la adopción de las medidas de seguridad de índole técnica y organizativa para proteger la confidencialidad e integridad de la información, de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica LS/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y demás legislación aplicable y ante quien el titular de los datos puede ejecutar sus derechos de acceso, rectificación, oposición y cancelación de sus datos de carácter personal suministrados, mediante comunicación escrita.

A RELLENAR POR EL MÉDICO	
Atendido en consulta:	ORDINARIA ☐ URGENTE ☐ INGRESO ☐
Diagnóstico:	_____
Clasificación de la lesión:	_____
Anatomopatológicos:	Código nº _____ Asiento anatómico: Código nº _____
Tratamiento actual:	Vendaje ☐ Férula ☐ Yeso ☐ Sutura ☐ Otros _____
Posibles Pruebas diagnósticas:	RX ☐ RMN ☐ TAC ☐ ECOG ☐ EGG ☐ EMG ☐ Otras _____
Posibles Tratamiento Ulteriores:	RHB ☐ IQ ☐ Otros _____ Ninguno ☐
¿Causa baja deportiva?	SI ☐ NO ☐ N° Días de baja estimada: _____
¿Concurre alguna enfermedad o lesión anterior relacionada con esta lesión?	SI ☐ NO ☐ Especifique cual: _____
DÍA:	HORA: FIRMA DEL MÉDICO

GARRANTZITSUA :	
- Laguntza medikoa eskatzeko, <u>beharrezkoa da lesio-parte hau behar bezala beteta aurkeztea</u>, zenpetuta, klubaren sigiluarekin, eta min hartutako jokalaria izenpenarekin. <u>Derrigorrezkoa da min hartutakoaren federazio lizentzia aurkeztea</u>. - Osasun zentruak jokalariai baja emango balio, osagileak gorde egingo du lizentzia, eta dagokion alta aurkezten denean berreskuratu ahal izango da - Polizaren bermea, ondoren agertzen diren zentro kontzertatuertarako da soilik. <u>Osakidetzaren ospitaleetako zerbitzuak larrialdetan baino ezin erabil daitezke.</u>	
M EDIKUNTZA KOORDINAZIO ZENTROAK:	CEDEMESA.Astelehenetik ostiralera 09-13 eta 16-19 Tf 94 41283 11
LAGUNTZA ETA KONTSULTA ZENTRUAK	
Bilbo:	CLINICA VIRGEN BLANCA-C/Maestro Mendiri, 2 Bilbao Tfno. 94.412.83.11-94.412.70.11
Durango:	CENTRO EZKURDI- C/Askatasun Etorbidea, 23 Tfno. 94.681.81.81
CITA PREVIA: Con el fin de mejorar la calidad de los servicios, las consultas médicas en los Centros de Asistencia (Cemedesa y Ezkurdi) se deberán realizar mediante cita previa en los teléfonos que figuran en este parte. HORARIO: Lunes a Viernes de 9 a 13 h y de 16 a 19 h. (Excepto viernes tarde)	
URGENCIAS	
Bilbao	CLINICA VIRGEN BLANCA C/ Maestro Mendiri, 2 Tfno. 94.412.70.11
Bilbao y Resto Provincia:	Centros de Osakidetza
CLÍNICA DENTAL (<u>Exclusivamente</u>)	Dr Ignacio Solís Polo C/Juan de Ajuriaguerra 4-A Tfno 94.423.38.59 Dr Jesús Mª Arenaza C/ Hurtado de Amezaga 20 Tfno 94.415.78.34

CENTROS DE REHABILITACIÓN	
ALGORTA:	•Centro de Terapias Integradas – Izalde, 1 bajo Tfno 94.430.18.01; Ethos – Casune 27 Tfno. 94.431.90.61
BILBAO:	Centro Médico Bailen - Pérez Galdós 49 Tfno 94.439.99.61; Centro de recuperación Urtzi - Pablo de Alzota 2 Tfno 94.427.50.94; Jesús Zelaia Ibargüengoitia - Virgen de Begoña Tfno 94.446.46.21; C. Recuperación Medicina y Deporte - Rafaela Ibarra 23 - 5º D Tfno 94.476.32.20; Miguel Gutiérrez - Colón de Larreategui, 26 bajo Tfno. 94.424.34.41; Fisioterapia Legarra - Juan de Gardeazabal, 1 Tfno 94.433.90.09; Eskuka - Correo, 8- 1º Tfno 94.479.46.94; Fisioterapia Recuperación Funcional Campa - Santutxu, 74 -1º 94.433.16.81; Centro de Fisioterapia Abando – Villarías, 10 -4º Dpto.404 Tfno 94.600.49.21; Osalaketa – Licenciado Poza, 10 Tfno. 94.444.17.19; Sasoian - Txomin Garat 9 ent-derch Tfno 94.400.13.86
BARAKALDO:	•Clínica Nafarroa - Nafarroa, 20 Tfno 94.438.50.22; Hirurena - Berriotxo, 1 Tfno 94.404.79.62
BERMEO:	•Lamera fisioterapia - Mikel Deuna, 2 Tfno 94.688.02.52
GALDAKAO:	•Clinica Bizkai - Bizkai Kalea, 5 Tfno. 94.457.32.68; Zainddu - Errekalde bidea 5 trasera Tfno 94.436.70.14
ERANDIO:	•Jose Ángel Ramos Gómez – Nafarroa Behera, 2 bajo Tfno.94.467.51.83
ERMUA:	•Indartu - Avda de la Diputación, 8-10 Tfno 94.317.21.12
LAS ARENAS:	•Fimesport - Muelle Tomas Olábarri, 1 Tfno 94.464.53.55; Ganeta - Plaza Ganeta, 2 Tfno 94.464.27.94
LEIOA	•Centro Fisioterapia Leioa c/ Luis Bilbao Libano 7 entrep B Tfno 94.402.00.48
GERNIKA:	•Ibaurre - Askatasun Kalea, 1-2 Tfno 94.625.55.85; Gotzon Lauzirika - Carlos Gangoiti, 4 Tfno 94.625.55.80; Osalan –Uharte Kalea 12 Tfno 946270890
DURANGO:	•Alluitz – Sasikoa, 18 Tfno 94.620.20.52; Ezkurdi -Avda Zumalakarregi, 6-5º Tfno 94.620.43.20
LLODIO:	•Osaketa Medikuntza Zentrua - La Muza, 23 Tfno 94.672.64.77; Clínica Kirolzale -José Matía, 6 Tfno 94.672.66.82
MUNGIA:	•Clínica Malay -Lauaxeta Olerkari, 46-C 1º Tfno 94.674.35.87; Centro Villa Luisa - Goietako Plaza, 5 Tfno 94.674.50.40
ONDARROA:	•Centro de Recuperación - Iñaki Deuna, 49 Tfno 94.683.19.18
OROZKO:	•Beldio – Larrazabal, 6 Tfno 68.861.16.46
PORTUGALETE:	•Fisiolan - J.Gutierrez Lumbreras, 6 Tfno 94.462.74.47
SANTURTZI:	•Instituto Municipal de Deportes - Paseo Reina Victoria s/n Tfno 94.483.66.25; Maidier Figuerola Bilbao - Plaza Kabiezes 9 Tfno 94.404.79.61
TRAPAGARAN:	•Aritz Monasterio Arana - Dolores Ibarruri, 1 Tfno 94.492.53.98
ZALLA:	•Joseba Alonso – Tepeyac,10 Tfno 94.639.06.75